

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Proiektuak behar bezala funtzionatzeko, ezinbestekoak dira hainbat bazkide eta hornitzaile. Lehenik eta behin, denda txikien jabeak behar ditugu, haiek dira gure zerbitzuaren ardatza eta aplikazioaren eduki nagusiaren hornitzaileak. Teknologia berritzaileak ere ezinbestekoak dira aplikazioa eta webgunea sortzeko, mantentzeko eta eguneratzeko. Bestalde, garraio-zerbitzuak behar ditugu bezeroek erositako produktuak modu azkar eta eraginkorrean jasotzeko. Tokiko hornitzaileek produktuak eskaintzeko aukera emango digute, denda txikiek beti horniketa egokia izan dezaten. Azkenik, udalak eta merkataritza elkarteak dira proiektuaren babes ekonomiko eta logistikoaren oinarri, haien laguntza ezinbestekoa izango baita ikusgarritasuna eta baliabideak lortzeko.